



2019/09/13KO UDALBATZAREN EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2019/09/13
Hasiera ordua: 10:00
Amaiera ordua: 10:15

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna

Maria Cristina Etxenausia Irure

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Juan Antonio Peña Orobengoa

Ez bertaratuak:

Oihana Ameskua Perez

Iban Herrarte Arana

Santiago Balantzategi Ugarte

Ana Maria Martiarena Arregi

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ARAMAIOKO ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EGOKITZE LANEN KONTRATUAREN ESLEIPENERAKO ESPEDIENTEA ONARTZEA.	3
2. LEADER ZONAKO LANDA-INGURUKO UDALERRIEN EKONOMIA SUSTATU, GARATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZEI DAGOKION DIRULAGUNTZA DEIALDIAN PARTE HARTZEA.	3
3. ONARTZEA, BASOETAKO HOBEKUNTZA FUNTSA ERABILTZEKO ESKAERA EGITEA ARABAKO FORU ALDUNDIARI.	4



1. ARAMAIOKO ERABILERA ANITZEKO EKIPAMENDUA EGOKITZEKO KONTRATUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Alkateak gogorarazten du, batetik, apirilaren 12ko 9/2017 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiaren obra eta zerbitzuen foru plana arautzen duela; eta, bestetik, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 2ko 26/2017 Foru Dekretuaren bidez dagokion deialdia egin zela eta Aramaioko Udalak diru-laguntza eskaera egin zuela, hain zuzen ere, "Gazteentzako udal zentro erabilera askotakoa" izendatutako proiektua aurkeztu zuen deialdian. Horren xedea da, Pedro Ignazio Barrutia kaleko 7 zenbakiko udal lokalean erabilera anitzeko gazte zentroa egokitzea.

Ondoren, Foru Gobernu Kontseiluaren 260/2018 Erabakiak, maiatzaren 29koak, Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko 2018-2019 programarako laguntzak onesten dituenak, Aramaioko Udalarari 103.903,50.-€ko diru-laguntza esleitu zion, aurkeztutako 234.850,26.-€ko aurrekontuaren aurrean.

Halaber, Udalbatzak aurreko uztailaren 18an egindako Osoko Bilkuran onartu zuen hasiera ematea Aramaioko erabilera anitzeko ekipamendua egokitzeke kontratua esleitzeko espedienteari.

Aurreko guztia ikusirik, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako erabaki proposamena:

"Lehena.- ERABILERA ANITZEKO UDAL GAZTE ZENTROAREN EXEKUZIO LANAK EGITEKO KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espediente onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Bigarrena.- Lizatizio-prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura irekiaren bidez, esleitzeko hainbat irizpide emanda, batetik, eskaintzaren balorazio teknikoa, balio iritziaren araberakoa dena; eta bestetik, kalitate eta prezioaren arteko erlazioa, automatikoki zenbatesteko irizpidea dena. Guztia, izapidetze arruntarekin bideratuko da.

Hirugarrena.- Lizatizio-iragarkia udalaren kontratatzailearen perfilean argitaratzea, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.

Laugarrena.- Alkatea ahalmentzea ondokoak egin ahal izateko: eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatzailerari errekerimendua egiteko, espediente honetako akats materialak zuzentzeko eta pleguetan ematen zaizkion gainontzeko ahalmenak egikaritzeko."

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

2. LEADER ZONAKO LANDA-INGURUKO UDALERRIEN EKONOMIA SUSTATU, GARATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZEI DAGOKION DIRULAGUNTZA DEIALDIAN PARTE HARTZEA.

Aurreko 2019ko abuztuaren 22an argitaratu zen EHAAn, Agindua, 2019ko abuztuaren 9koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen dira, 2019ko ekitaldirako, 2015-2020ko aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak. Horren bidez deialdia egin eta onartu ziren, 2019 urterako Toki Garapen Parte Hartzaileko Estrategian (Leader ikuspuntua) zehaztutako helburuak betetzera bideratutako dirulaguntzen oinarriak.

Gogoratu beharra dago, Udalbatzak 2017ko ekainaren 29an egindako bilkuran, besteen artean, erabaki zuela Obra eta Zerbitzuen Foru Plana 2018-2019 dirulaguntza deialdian proiektu berbera aurkeztu zuela eta, Arabako Foru Aldundiak, 103.903,50.-€ko dirulaguntza esleitu zion proiektu horri, 2019ko martxoaren 26ko data duen idazkian adierazi bezala.

Kontuan hartuz, proiektuaren kostua 246.314,24.-€koa dela eta bi dirulaguntzak bateragarriak direla, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako erabaki proposamena:

Bakarra.- Aurkeztea "Erabilera anitzeko Udal Gazte zentroa" izendaturiko proiektua, 2015-2020ko aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko dirulaguntza deialdian.



Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

3. ONARTZEA, BASOETAKO HOBEKUNTZA FUNTSA ERABILTZEKO ESKAERA EGITEA ARABAKO FORU ALDUNDIARI.

Alkateak hitza hartu eta, adierazten du, aurtengo aurrekontuak egin zirenean beti bezala aurreikuspen batzuk egin zirela batzorde guztietako aurrekontuetan, behar, baliabideak, diru laguntza zein beste gauza batzuk kontuan izanda.

Gure batzordeak Arabako Foru Aldundiko mendi diru laguntzak eskatzerakoan, aurrekontu orokorreko aurreikuspenak findu ziren. Aurreikusi zen San Adrian inguruan beste sail publiko batean lan berdinak egiteko beharra identifikatu zen, eta horrela eskatu zen diru laguntzetan.

Orain, diru laguntza gehienek ebazpenak eskuartean izanda, udazkeneko lanak lantzen ari garenez. San Adrian inguruan udalak dituen sailetan "*desbrozea, poda eta klareo*" lanetan aurrekontuetan aurreikusi baino eremu handiagoa da.

Aurrekontuetan gastu bezala 4.840€ aurreikusi ziren eta sarrera bezala 2.000€, baina gastua 9.267,39€ izango dira eta sarrera berez 4.212,45€. Baina sarrera da Foru Aldunditik aurreratu digutena eta ez daukagu ebazpen ofizialik oraindik.

Guzti honegatik, basoen hobekuntza funtsetik gastu hau egin ahal izateko falta den dirua hartzea eskatzen dugu, hau da, 4.427,39€ (9.267,39€ - 4.840€).

Aurreko guztia ikusirik, alkateak aurkezten du Ingurumen-Mendi Batzordeak egindako erabaki proposamena:

Lehena.- San Adrian inguruko mendi publikoan sastraka-garbitze, inausketa eta argitzeko lanak egitea, guztira 3 ha. gehigarri inguru.

Bigarrena.- Onartzea, San Adrian inguruan egin beharreko lanen aurrekontu berria, 3 ha. gehigarri barne, guztira 9.267,39.-€ (dagokion BEZ barne).

Hirugarrena.- Onartzea, udal aurrekontuan aurreikusitako kopuruaren eta azkenean egin beharreko lanen arteko diferentziari dagokion zenbatekoa Hobekuntza funtsetik hartzea. Hau da:

- Hasieran aurreikusitako lanen kostua = 4.840,00.-€
- Lan gehigarriak barne aurreikusitako lanen kostua (3 ha. gehiago) = 9.267,39.-€

Diferentzia = 4.427,39.-€

Laugarrena.- Diferentziak eragindako gastua Aramaioko Udalarri dagokion Hobekuntza funtsetik egitea.

Bosgarrena.- Guztiaren berri ematea Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari.

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ingurumen eta Mendi Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.